



Ebaluazioa. Ekintzen garapena, balorazioa eta helburuen lorpen maila		10.1
Fasea: Ebaluazioa	Data: 2014-06-04	Arduraduna: Ingurumen Batzordea

Ekintzen balorazioa:

	Hobekuntza-helburuak	Ekintzak	Garapena eta balorazioa
KUDEAKETA	Mobilaren erabilerari buruzko sentsibilizazio kanpaina egin ikasleekin	“Mugikorren aurpegi ezkutua” testuaren lanketa	DBH 1. Mailako ikasleekin landu da testu hau indartze arloan. Taldeka irakurri eta hausnarketa ezberdinak egin dituzte koltana eta bere ustiaketak sortzen dituen ondorioak, bizi baldintzak etab-ei buruz
	Ikastetxean mobilen erabileraren arautegia argitu ikasleekin.	Bilera geletako delegatuekin	Antolaketa arazoak direla eta azkenean ez da egin pentsatuta zegoen bilera delegatuekin.
	Moda, publizitateari buruzko hausnarketa saio bat egin.	Kontrapublizitatea “Imagen extrema” dokumentala	DBH 4. Mailako ikasleek egin dituzte plastika arloan kontrapublizitate iragarkiak. Dokumentala hau ikusi dute DBH 3. Mailako ikasleek tutoretza orduan, eta berarekin batera publizitatearen eragina aztertu dute.
		GAP programa	GAP programan aurten hondakinak eta erosketak gaiak landu dira. DC taldekoak arduratu dira lan honetaz: diagnostikoak egin, ekintza plana antolatu...
	Hondakinak hobeto sailkatu	Bideoaren grabaketa	GAP programaren barruan, DC taldeko ikasleek bideo bat grabatu dute hondakinen sailkapen egoki eta desegokien jokaerekin. Bideo hori gela guztietan tutoretza orduan ikusi eta komentatu da. IRAEseko blogera ere bidali zen eta oso ondo baloratua izan ondoren, Euskadiko ingurumen topaketetan ere aurkeztu zuten antolatzaileek.
	Konposta	Konposta egiten jarraitu dugu. Kurtso hasieran arazoak izan genituen ontzia eta babesa apurtu zutelako, baina gabon ostean berriz martxan hasi zen.	

CURRICULUM	Kontsumismoa lantzeko materialen bat eskaini irakasleei	<ul style="list-style-type: none"> • “Yo quiero ser piloto” filmaren zatia • “Pink slime, McDonalds” fima • “Nugget experiment epic failure” fima • “Super size me” filma • “Pollo a la carta” filma • “La historia del agua embotellada” • “Surconsumation” • “Comprar, tirar, comprar” 	Material batzuk eskaini zaizkie irakasleei (bideoak gidoiekin, testuak...) Horietako batzuk landu dira eta baita ere irakasleak eurak aurkitutako beste batzuk. Gehienak filma laburrak izan dira eta hausnarketa ezberdinak egin dira beraiek ikusi ondoren.
		Kontsumismo hitzaldia	Batxilergoko ikasleek hitzaldi bat izan zuten Bolivian kooperante bezala egondako nutrizionista beten eskutik. Herrialde horretako bizimoduari buruzko gorabeherak jaso zituzten.
		Sukaldaritza tailerra: Jan osasuntsu natura zainduz	Ingurumen tailerreko ikasleek sukaldaritza tailerra burutu dute. 9 saiotan plater ezberdinak prestatu dituzte eta elikadura osasuntsua eta jasangarriaren inguruko hausnarketak egin dituzte. Oso ondo baloratu dute ekintza hau.
		Energia 3D	DBH 2. mailako ikasleak 3Dn proiektatutako energiaren erabilerari buruzko pelikula bat ikustera joan dira. Egin den balorazioa oso ona izan da.
		Ortua	Iaz hasitako lanarekin jarraitu dugu ortuan. Kurtso hasieran iaz jarritako uzta ezberdinak jaso ditugu eta eurekin baserrietako lan ezberdinak burutu: piperrak kordatu, indabak urkuldu, kipulak txortatu... Sasoi bakoitzeko ortuari batzuk jarri ditugu eurekin lan ezberdinak eginez: erein, landatu, ureztatu, batu, joratu... Bildutakoa txandaka eraman dute etxera eta baita ere sukaldaritza tailerrean erabili dute. Ekintza hau ingurumen tailerreko ikasleek eta laguntza gelakoek eraman dute aurrera eta oso motibagarria izan da eurentzat. Balorazio oso ona jaso du.
		Zugastietara-Peñas Negras irteera	2.DBH-ko ikasleak Zugastietara joan dira paisaia programa lantzerako
PARTEHARTZEA	IRAES sarean parte hartzen jarraitu.	2014ko egutegia	Ingurumen Tailerreko ikasleek urteko egutegia egin dute eta gela guztietan banatu dute. Bertan hilabete ezberdinetako orrialdeetan azterketa egunak, entregatzeko lanak... apuntatu daitezke.
		IRAES sareak proposatutako lanak	Sarean proposatu diren lan guztiak burutu dira eta blogean eskegitzeko bidaliak izan dira.

		CONFINT. Añanako Gatzaga	<p>Eskolako konferentzia burutu dute 3. Mailako ikasleek. Bertan Euskadiko konferentziara eramateko erabakiak hartu ziren eta bukaeran taldetxo batek flash/ moba dantzatu zuen. Hurrengo egunetan erabakitako ekintzak bete ziren: iturrietan bridak jarri, ingurua garbitu eta herrian kartelak jarri eta Busturiara eramateko materiala prestatu zen.</p> <p>Euskadiko konferentzian ikastetxeko ordezkari bezala lau ikaslek parte hartu zuten eta beste batek, ekoliderrak, antolaketa lanetan lagundu zuen. Bukaeran gure ikastetxea aukeratua izan zen estatu mailako CONFINTean, Bartzelonan, azaroan Euskadi ordezkatzeko beste 6 ikastetxekin batera. Balorazio oso ona egiten zaio ekintza honi ikasleentzat oso motibagarria baita.</p> <p>EA21eko ordezkariak, Ingurumen tailerreko ikasleek eta DC taldekoek egindako lana saritzeko Añanako Gatzagak bisitatu eta bertan eskainitako tailerra burutu dugu. Oso interesgarria eta ondo baloratua izan da irteera hau.</p>
	Langile ez-irakasleekin bildu bakoitzaren parte hartzea zehazteko	<p>Langileekin bilerak</p> <p>Irakasleentzat formazio saioa</p> <p>Sasoiko barazkien otzarak</p> <p>Liburu eta disko gogor ibiltariak</p>	<p>Garbitzaile, atezain eta idazkariarekin bilerak egin dira bakoitzak bere esparruan proiektuaren inguruan egin dezakeena zehazteko asmoz. Puntu batzuk aztertu dira, baina datorren urtean lan honekin jarraitzeko beharra ikusten da.</p> <p>Ikasturte hasieran irakasleek formazio saio hau: "Elikadura arduratsua etorkizunaren erronka" izan zuten. Bertan inguruko baserriarren otzaren eskaintza ere egin zen, eta horren ondorioz 7 irakaslek astero jasotzen dute sasoiko barazkiekin hornitutako otzara</p> <p>Iaz hasitako ekintza honekin jarraitu dugu. Liburu ibiltariak 1. Mailako familietatik pasatu dira gurasoen ekarpenak jasotzeko eta disko gogorak 3. Mailako eta batxilergoko ikasle berrien familietatik. Aurten ere ekarpen oso interesgarriak jaso dira, eta sortutako bilduma web orrian eskegiko da.</p>
UDALA		Kontsumismoa eta Publizitate tailerrak	<p>EMAUS taldeko monitoreak gidatutako tailerrak egin dituzte EA21eko ordezkariak. Saio baten publizitate ezberdinak eta bere eragina aztertu dute gelan eta ondoren herriko kaleetan jarrita dauden publizitate iragarkiak aztertu dituzte. Kontsumismoari buruzko galdetegiak ere egin dizkiete herriko biztanleei. Ateratako ondorioak udal foroan aurkeztu dira.</p>
		Hondakin organikoari buruzko tailerrak	<p>Mankomunitateak antolatutako tailerretan parte hartu dute Ingurumen tailerreko eta DC taldeko ikasleek. Alde batetik hondakin organikoari buruz informazioa eta konposta nola egin behar den ikusi dute. Konpostadora berri bat ere ekarri digute. Beste egun batean Berrizko hondakin organikoen atez ateko bilketa ikusi eta konposta egiteko gunea bisitatu zuten.</p>
		Ibaialde eta Azterkosta	<p>Herriko Ibaizabal ibaia eta Laga-Laidako kostaldea aztertu dituzte Ingurumen tailerreko ikasleek.</p>
		Udal foroa	<p>Eskolen arteko foroa eta udal foroa burutu dituzte EA21eko ordezkariak.</p>

Helburuen lorpen maila:

	Hobekuntza-helburuak	Adierazleak	Ebaluazioa (adierazleen emaitzak)
Curricu luma	Kontsumismoa lantzeko materialen bat eskaini irakasleei	Eskainitako materialak	9 material ezberdin (testuak, bideoak, hausnarketa gidoiak...) jarri dira irakasleen esku arlo eta maila ezberdinetan lantzeko, beraz helburua lortu da.
Kudeaketa	<p>Mobilaren erabilerari buruzko sentsibilizazio kanpaina egin ikasleekin.</p> <p>Ikastetxean mobilen erabileraren arautegia argitu ikasleekin.</p> <p>Moda, publizitateari buruzko hausnarketa saio bat egin.</p> <p>Hondakinak hobeto sailkatu</p>	<p>Egindako kanpaina</p> <p>Egindako azalpen saioaren erregistroa</p> <p>Egindako hausnarketa saioak</p> <p>Kurtso hasieran eta bukaeran egindako behaketen konparazioa</p>	<p>Kanpaina zehatza egin da DBH 1. Mailako ikasleekin "Mugikorren aurpegi ezkutua" testuaren laguntzarekin.</p> <p>Ez da burutu azalpen saio hau, beraz, helburu hau ez da bete.</p> <p>3 saio burutu dira moda eta publizitatearen inguruan, beraz helburua lortu da.</p> <p>Datuak konparatuz sailkapena hobeto egiten dela esan daiteke.</p>
Partaidetza	<p>IRAES sarean parte hartzen jarraitu</p> <p>Langile ez-irakasleekin bildu bakoitzaren parte hartzea zehazteko</p>	<p>IRAES sarean egindako lanak baieztatu</p> <p>Egindako bileraren akta</p>	<p>IRAES sarean aktiboki parte hartu dugu eta proposatutako ekintza guztiak burutu ditugu. Sare horretako blogean eskegita daude denen erakusgai</p> <p>Bilera hori egin da</p>